

2023ko hirugarren hiruhilekoan esportazioen prezioak %13,7 igo dira Euskal AEn

Inportazioen prezioek %12,7 egin dute gora

2023ko hirugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioak %13,7 igo dira 2022ko hiruhileko beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, %0,5eko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek joera bera izan dute; izan ere, %12,7 igo dira urtetik urtera, eta %1,3 2023ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta

Esportazio “energetikoen” prezioak %16,4 igo dira aurreko urtearen aldean, eta “ez-energetikoenak” %13,9. Aurreko hiruhilekoaren aldean, ondasun “energetikoen” prezioak %3,1 igo dira, eta “ez-energetikoenak” %0,4.

Inportazioen kasuan, produktu “energetikoen” prezioen indizeak %16,6 egin du gora, urtetik urterako tasan, eta “ez-energetikoenak” %11,5. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio “energetikoak” %2,1 igo dira, eta “ez-energetikoak” %0,8.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2023/III

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,5	13,7	1,3	12,7
Energiazko gaiak	3,1	16,4	2,1	16,6
Energiazkoak ez diren gaiak	0,4	13,9	0,8	11,5
Kontsumo-ondasunak	0,1	11,4	-1,7	5,5
Kapital-ondasunak	2,1	10,5	0,3	14,3
Bitarteko ondasunak	0,2	15,2	1,7	13,3

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hiri beraren aldean

Data 2023ko Abenduaren 29a

Oinarria: Eustat, Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** arabera sailkapenari jarraituz, Kontsumo-ondasunen (%11,4), Bitarteko ondasunen (%15,2) eta Kapital-ondasunen (%10,5) esportazioen prezioek gora egin dute aurreko urtearen aldean. 2023ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, garestitu egin dira hiru sektoreak: Kontsumo-ondasunak %0,1 hazi dira, Bitarteko ondasunak %0,2, eta Kapital-ondasunak %2,1.

Inportazioak aztertuta, agerian geratzen da hazkundera orokorra izan dela urtetik urterako konparazioan, Kapital-ondasunak (%14,3), Bitarteko ondasunak (%13,3) eta Kontsumo-ondasunak (%5,5) hazi baitira. Hiruhilekoen arteko alderaketan, igo egin dira Bitarteko ondasunak (%1,7) eta Kapital-ondasunak (%0,3); hala ere, Kontsumo-ondasunek behera egin dute (%1,7).

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, prezioek goranzko joera erakusten dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Eurogunean %8,3 egin dute gora, EBn %9,8, ELGAn %12,0 eta munduko gainerako herrialdeetan %23,5.

2023ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, batetik, joera nabarmen moteldu da munduko gainerako herrialdeetan, %5,5eko hazkundera izan baitute; bestetik, beheranzkoa bilakatu da gainerako eremuetan: ELGAn prezioek %0,5 egin dute behera, EBn %1,1 eta eurozonan %1,8.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2023/III

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,5	13,7	1,3	12,7
Euro eremua	-1,8	8,3	0,0	9,8
EB-28	-1,1	9,8	0,5	8,8
ELGE	-0,5	12,0	2,8	12,4
Munduko besteak	5,5	23,5	-2,2	12,8

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hiri beraren aldean

Data 2023ko Abenduaren 29a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Eremu geografiko guztietako inportazioetan prezioek gora egin dute. 2022ko hiruhileko berarekin alderatuta, munduko gainerako herrialdeetako igoera nabarmen izan da (%12,8), baita ELGarena ere (%12,4). Urte honetako bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, igoera orokorraren salbuespen bakarra munduko gainerako herrialdeak dira, %2,2ko jaitsiera izan baitute.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62